

## BESTAK ETA NESKAK

ANTTON ETA PETTAN  
(25 bat urte)

**ANTTON:** Irunako bestetarat jin gogo duk?

**PETTAN:** Uste nitek! Orhoitzen haiz, jaz, zoin gustatu ginen? Han dituk han egiazko bestak! Biba Panplona! Goizeko zazpi orenetan zezenak libratzen dituztelarik, orduan orduan xintximariak!...

**ANTTON:** To; gure ondoko atso lodi harek segurik ez zian xantzarik ukan!

**PETTAN:** Hik errak!

**ANTTON:** Zer oihi eta karrasiak ez zituen egin; adarren puntan ibilirik, zezenak botatu zuenean hamar metretan harat... Gaizo emaztea! Iduri-ta haren lekua zen han...

**PETTAN:** Zer nahi duk; pesta egunetan, denek nahi ditek jostatu...

**ANTTON:** Bai. Bainan halere zezenen aintzinean lasterka ibiltzeko ehun kiloko atsoak ez dituk hain zalu...

**PETTAN:** Ez zukeian ez, ehun kilorik...

**ANTTON:** Hu; ez urrun... Ikusi bahintu haren izterrak, han; itzulipurdika zabilalarik, harrituko hintzan! Holakoak zitian! (*bi eskuz erakusten dio largotasuna*).

**PETTAN:** Zer haiz hi, atsoen izterri so egoiten? Nik hango nexkatxeri diat behatzen... Pollitak dituk gero! Biziki pollitak. Pixka bat beldurtiak; bainan arras beroak... Nik ezagutu nuena segurik!...

**ANTTON:** Ni; Irunarat banoalarik ez nuk neskatxentzat joaiten. Nafarra-ko arno beltza diat jastatzen... Eta jastatuz geroz, badakik...

**PETTAN:** O bai! Ikusten hut oraino, karrikaren erdian etzanik, xahakoa sahetsean, segur pilda pollita hintzan...

**ANTTON:** Ago ixilik! Ez nintian luzaz egon... So egizak; hementxet diat oraino, poliza mutur beltz baten matraka ukaldiaren orhoitzapena... Jakin-zak laster xutitu behar ukan nuela!

**PETTAN:** Zer derasak; hori mototik erori hintzalarik egin huen...

**ANTTON:** Errak to, badakiak gero zer diotan... Motoko kolpea bizkar hezurrean hartu nian eta matraka ukaldia, ipurdi mazelan!

**PETTAN:** Emeki emeki; ez dik balio haserre hadin. Bardin irri egiteko ari nintian...

**ANTTON:** A bon! Hobe... Uste nian... Bainan gauden hortan... Eta Lekeitioko bestetarat joanen gituk aurten ere?

**PETTAN:** Ezkondua izanen nuk...

**ANTTON:** Zer? Ezkondua? Beha zazue apo txirtxil huni! Ez haitan deus erranik...

**PETTAN:** Ez nintian menturatzen...

**ANTTON:** Ez ote nauk hire lagun hoberena?

**PETTAN:** Bai, bai, bainan ez nakian nola has... Badakik ez duk aise...

**ANTTON:** Nahi baduk egia jakin Pettan, erranen deat garbiki; azken denbora hotan, zerbaitez beldurtzen hasia nintian...

**PETTAN:** Nolaz...

**ANTTON:** Batean; aita lagundu behar belarren egiten, bestean, ama merkaturat segitu behar; larunbat arratsetan ere erraiten haitan, mezarat johanki hintzala, igandeko partez... Orai, ikusten diat, gatu horrek bazuela beste buztanik...

**PETTAN:** Ez haiz gaitzitua bederen...

**ANTTON:** Gaitzitua ni? Ago ixilik mutikoa... Pentsatzen diat halere, ezkondua ere, besta zonbait eginen dugula elgarrekin...

**PETTAN:** Ez nuk orai arte nintzan bezain libro izanen...

**ANTTON:** Zer duk; emazte galtzaduna hartzen?

**PETTAN:** Ez, ez.

**ANTTON:** Eta beraz... Eskontza ez duk gero urka bilurra...

**PETTAN:** Ez nuk hoin usu jaliko...

**ANTTON:** Zer zirezte beti etxean egonen, ttotto eta lollo bezala? A force, ça devient monotone hé!

**PETTAN:** Ez diat hori erraiten...

**ANTTON:** Nik segurik; ezkondu aintzin kondizioniak eginen ditiat! Hopp pette! Ez nuk gero beti etxean egoitekoa... doitré!

**PETTAN:** Bordaberri-ko Xarlex ere dena espantu zian haste hartan, orai to; sudurra plastran duk... bere emazte kriketa delà medio...

**ANTTON:** Xarlex-ek bere hutsa dik... Etxeko afera ezin egin eta auzoko oilanden ondolik badabilak, errabiatua...

**PETTAN:** Nork erran dauk hori?

**ANTTON:** Leku segurretik jakina diat...

**PETTAN:** To, nere lehen berria duk...

**ANTTON:** Horiek hola; ez haiz beraz Lekeitioko bestetarat jinen... Zer pena. Jaz arras gustatu gintian...

**PETTAN:** Hi bai. Bainan nik, badakik nun pasatu nuen lehen gaua? Otoko kofrearen barnean! André eta Jean-Louis, biak edanak, lauen lekua hartzen zitean...

**ANTTON:** Zer uste duk, ez naizela orhoit? Kofrearen barnean hintzala nahi diat. Eta ni, badakik nun nintzan? Otoaren azpian! Goizalderat, izigarriko hotza egin zian: hortzak kas kas kas kas ari zitzaztaian, eta poliz otoa gure ondoan pasatzen zen aldi guziz, behar nian bi eskuz ahoa tinkaturik atxiki, poliz gizonak ez zaiten neri ohart! Zeren han, ez duk arraieriarik gero... Tra tra! Eta gizona pitoz gora igortzen ditek, gehiagoko arrazoinik gabe...

**PETTAN:** Ez zakala erran hala ez denik...

**ANTTON:** Jakinzak, ez nuela ordu hartan, espanturik...

**PETTAN:** Bon, bon... eta hamar pinta Pernod pasatu hintuelarik, Dantxariako bidexkatik...

**ANTTON:** Mutikoa, ago ixilik! Nun nahi badituk poliz gizonak gorderik!...

**PETTAN:** Barkatu... Baniak... Geroxago mintzatuko gaituk Lekeitioko bestetaz... Aita behar diat lagundu...

**ANTTON:** Baietz Pettan... hire emazte-geiari, egizkiok nere partez bi musu...

**PETTAN:** Gaixoa! Oren huntan nere beha dagok! Zernahi erranen daitak...

**ANTTON:** Behar bezala hez-ak ordu deno! Ez zaik dolutuko!

**PETTAN:** Hi, hola segituz, geldituko haiz donado!

**ANTTON:** Ez hadila kexa neretako...  
Orainokoan segurik,  
Dotzenan baditiak hamahiruno!

Daniel LANDART